


JOSETXO ORUETA



ORTZIREN HORTZA

Itzulpena: J. SAGASTIZABAL




Hiztegitxo


Hobeto irakurtzen laguntzeko




agerkunde 'ezerezetik agertua'	«Denek besarkatu zuten elkar negar batean, Mikelot ukituz agerkunde bat legez.»	(165)
ahal 'desioa adierazteko' (ojalá)	«Nirekin ere gogoratuko ahal zara!»	(37)
ahalik 'ahal zuen neurrian'	«Gartxoten nahia herritarrei ahalik poz eta zorion-amets handienak eskaintzea zen...»	(23)
ahoa bete hortz 'harrituta'	« Ahoa bete hortz , jana irentsi ezinik.»	(81)
aida batean 'ato baten, berehala'	« Aida batean hasi ziren dantzak.»	(23)
aiduru 'itxaroten, zain'	«Urrundu dira otsoak baina gizakiengandik ospa doazen orein, basahuntz eta basurdeen aiduru daude.»	(206)
aienatu 'uxatu, aldendu'	«...gizon horren begirada zuzen eta sakonak aienatu zion zalantza.»	(77)
aieruz 'keinuka'	«Gartxotek ezin zuen ulertu semeak aieruz esaten ziona...»	(180)
aire 'doinua'	«Mikelotek erritmo saltakaria markatzen zuen danbor arin batez, aitik aire ozenak jotzen zituen flauta hiru zulodunaz, bien orkatiletan kaskabiloak.»	(23)
aisekien 'errazen, modurik errazenean'	«Kontuz ibil, ardi beldurtiena harrapatzen du otsoak aisekien .»	(130)
aitaren egin 'gurutzearen keinua egin'	«...koblakariak hiru aldiz egin zuen aitaren eta hatz lodiari muin eman...»	(15)
akigarri 'nekagarria'	«Errolan kondea zerbitzatzea zeregin akigarria zen...»	(115)
akuilatu 'bultzatu'	«Errolan eta Olivier jakin-minak akuilatuta etorri ziren, eta baskoiei Jainkoaren hitza entzunarazi nahiz.»	(90)
alaena 'halakoa'	«— Isildu behingoz eta eseri, lerdo alaena .»	(14)
alarau 'orroa, oihu lazgarria'	«Gorputz txikituen agoniako alarauak , amen dei etsiak seme-alaba ordurako hilei.»	(167)
aldarrika 'oihuka'	«Batzuk aldarrika , bestek itzultzen, elebidunei kexak azaltzeko eskatzen baten bat; patetikoa zen desordena.»	(65)
aldarte 'umorea, jarrera'	«Mikelotek ez zekien frankoen aldartea mutur batetik bestera joan zitekeela?»	(73)
alderrai 'norabide zehatzik gabe ibili'	«"Nire herria ez da dagoeneko nazio alderrai ", pentsatu zuen erregeak nostalgiaz.»	(112)
angon 'arma mota' (?)	«Lantzek armadurak lehertu zituzten, angonek haragiak urratu.»	(95)
ano 'zakutoa, poltsa txikia'	«Mokadurik onenak noble eta kapitainek jango zituzten, baina gerrari guztiek edukiko zuten okelarik anoan .»	(30)
apeta 'kapritxoa'	«Ez zuen ulertzen, berriz, zaharraren hautua. Zergatik ez zuen bera aukeratu horrelako bilera baterako? Apetak eman bezala jokatu zuen zaharrak?»	(84)
arakatu 'miatu, ikertu'	«...begiek eraso-itzalak zekuskiten goialdeetan, abangoardiak ingurua arakatua bazuen ere.»	(30)
arantzatsu 'tentsiozkoa'	«Mutarrif mintzatu aurretik isilune arantzatsua .»	(101)
arbuigarri 'txarra, onartezina'	«Amorraioak astindu zituen poetaren erraiak. Bizilekura sartzea, jana lapurtzea, gauza arbuigarriak ziren, baina ez oso larriak...»	(13)
ardaila 'zalaparta, harrabotsa'	«Gurdien aldetik borroka ardaila eta arabierazko hitzak.»	(159)



arerio 'etsaia'	«Horrexegatik lortu du tropa etsaiak banantzea, horrexegatik ari da arerioa detxematzen gutxika, jo eta jo.»	(221)
argotear 'agotak, giza talde berezia'	«...arbuaiatuak sarri, miretsiak batzuetan, beldurra zitzaien; jarduera misterioitsuak eta azti dohainak egozten zizkieten: argotearrak .»	(39)
arieta 'harresiak botatzeko makina mil.'	«Murailak eta atek dardaraz jarri zituen frankoen tropen arieten talkak, baina zurezko egiturak ez ziren pitzatu.»	(146)
arraitsu 'distiratsua'	«Ilargirik gabeko gau arraitsua , borondate misterioitsu batez zabaldutako izar sortek argizatua.»	(28)
arro 'sakana, ibarra'	«Lehenengo, harrizarren arkitektura demasak zapaldu; gero, tarte neurgaitzera, arro zabala ikusiko du, mendikateak ertzetan.»	(49)
artean 'oraindik' (lehenaldian)	«...izan ere, euskaldunen artean, ez zen nagusi, artean , maitasuna galarazten duen erlijioa.»	(165)
asaldagarri 'ikaratzekoa'	«...azken mezulariak albiste asaldagarri gehiago ekarri zituen.»	(176)
askazia 'leinua, belaunaldien segida'	«Irakurri nuenean zin egin nuen yemendar askazia mendekatuko nuela, eta ez dut hori egin arteko onik izango.»	(109)
ataka 'estualdia'	«...kapitain gazteena izanik moldatu nintzen bizirik iraundakoak atakatik ateratzeko. Eta heroizat hartu ninduten!»	(104)
ausiabartza 'deskalabrua, hondamena'	«Bembezarreko ausiabartzak gori zirauen Sulaymanen buruan.»	(109)
baldar 'dorpea, baldresa'	«Halere, laster eraman zuten Idoia zeregin baxuagoetara; zakarra omen, eta baldarra zerbitzatzen, ontziteriarekin-eta.»	(147)
baliatu 'aprobetxatu, profitatu, erabili'	«— Jakingo dugu zure hiriaren bakea meditatzeke baliatzen ...»	(104)
barrunbe 'sakounea, lekutxo ezkutua'	«...Leirek leize barrura eraman zuen gela txiki obal batera. Haratago oso sabai baxuko beste barrunbe bat zegoen.»	(143)
bedi 'izan bedi, izan dadila'	«Boluntario azaldu zen, ezetza hobena litzateke. — Bedi! Gure azken saioa izango da...»	(153)
begiradari ordaina eman 'begirada zuzendu, itzuli'	«Ez zion Mikeloten begiradari ordainik eman .»	(23)
begirakune 'so egitea, begiratzea, adikunea'	«Orduan, orduan bakarrik jabetu zen Mikelot Leireren begirakunearen tristuraren handiaz.»	(145)
bekaitz 'gorrotoa'	«Begirada kuxkuxeroak sentitzen zituen Mikelotek; mespretxuzkoak batzuk, bekaitz agian.»	(76)
beldurrak airean jarri 'izutu, beldurtu'	«...eta horren izena aipatzen hutsak beldurrak airean jartzen zituen: Gartxot.»	(123)
beretar 'bere kidea, laguna'	«Badoa karga oldarrean, gerarazten saiatzen dena beretarrek zanpatuko dute.»	(132)
bermatu 'eutsita, apoiatuta'	«Zaratak aztoratu zuen Mikelot. Gezi batek bermatuta zegoen zuhaitza zulatu zuen.»	(149)
bidebanatze 'bidegurutzeta, kurtzederoa'	« Bidebanatze batean sortaldekoak tentatu zituen, Getaria eta Oriorakoak...»	(21)
biz 'bi aldiz'	«Bigarren hesian ari da borrokan, bakarra gatazkan, eta biz biderkatu zaizkio kideak.»	(218)
bizitzeke 'bizi barik'	«Lagun gehiegi joan zen Maiaren magalera urterik onenak bizitzeke .»	(123)
brau 'brausta, kolpean'	«...etxe baten hondarretatik irtendako franko talde handi xamar bat brau erori zen, giza harrapakinen aurka.»	(169)
burrundara 'zalaparta, zarata'	«Hegoaldeko atean goranzko burrundara . Batzuek, besterik gabe, Qarl erregearen aurrean errenditu nahi zuten, errukia eskatuz...»	(140)




buruan 'amaieran'	«Euskaldunentzat ekaineko egun sakratu horren buruan Akelarrearen gaua hasten da.»	(143)
dakusatza 'ikusten ditu'	«Ekkekartek tropak ahultzen, zatikatzen dakusatza . Ausiabartza buruetan. Herio dabil gainetik hegaka.»	(223)
demasa 'neurritz kanpoko, gehiegizkoa'	«Lehenengo, harrizarren arkitektura demasak zapaldu; gero, tarte neurgaitzera, arro zabala ikusiko du, mendikateak ertzetan.»	(49)
derrigor 'nahitaez, ezinbestean'	« Derrigor kontatu beharko zuen hainbesteko arrakasta ematen zion kontakizuna...»	(15)
despit 'gorabehera'	«...gainerakoak pixkanaka jaisten dira, agerkeria estu-estuan, Banu Qasi eta menditarren etengabeko erasoen despit .»	(215)
detxematu 'detxema egin (diezmar)'	«Horrexegatik lortu du tropa etsaiak banantzea, horrexegatik ari da arerioa detxematzen gutxika, jo eta jo.»	(221)
dilindan 'zintzilik, kulunkan'	«Emeki, lepotik zintzilik zuen hede fin bat atera eta Idoiari sartu zion burutik behera; zurezko lauburu txikia dilindan gelditu zen Idoiaren bularraldean.»	(38)
diosala egin 'agurtu, saldatu'	«Guardiek ez zioten diosalik egin , ez zen halako gauzen zalea...»	(105)
doi 'apurra'	«Horrela hitz egiten zien Maiak seme-alaba kuttunei, lur azaleko izaki guztien musikaz, txoriaren deiaz, harrien karraska doiaz .»	(28)
doi 'leuna, txikia'	«Keinu doi batez gerarazi zuen Al Hussaynek gardien buruaren mugimendua...»	(125)
doilor 'azpikeriazkoa'	«—Txantaje doilorra! »	(133)
durendal 'Errolanen ezpata mitikoa'	«...tropolitan aurrean jarri, ikus zezaten, eta mugimendu zabal arin batez Durendal atera zuen zorrotik eta ahalik gorena jaso.»	(96)
ebasketa 'lapurreta, ohointzea'	«Ez gudurik, ez diru, emakume, ebasketarik .»	(150)
eginahal 'ahalegina'	«...izerdi patsetan zegoen entzun ziezaioten egin beharreko eginahal itzelagatik.»	(47)
egitasmu 'proiektua'	«Bihotza esperantzaz eta burua egitasmuz beterik, kanpainarik handinahienari ekin dio.»	(29)
egonean 'patxadaz geldi'	«Denborarik gehienez, halere, egonean mutila.»	(146)
egonezinak egon 'urduri egon, artega egon'	«Zure munduak nireari zer egingo ote dion egonezinak nago .»	(78)
egotzi 'bota, kaleratu'	«—Mintzatu berri naiz Iruñean utzi genituen klerikoekin. Laidotu eta egotzi egin dituzte hiritik. Inork ez du Kristoren hitza entzun nahi izan.»	(162)
eldarnio 'sukar-ametsa, haluzinazioa'	«Tatarrez darama Mikelotek laguna, astunki; eldarnioan Hunaldo.»	(228)
eraile 'hiltzailea' (eran aditzetik)	«Leire, eta eraileak ; Idoia, eta zenbateraino izan daitekeen bizitza hauskorra...»	(193)
erantzi 'kendu'	«Hori esan eta sudur babeskidun kaskoa erantzi zuen Errolanek.»	(95)
erdiragarri 'urragarria, min handikoa'	«Gorputzak dozenaka dautza jarrera sinets ezinetan, intziri erdiragarrien kontzertuan.»	(227)
erlaitz 'amildegi ertza'	«Ahots eta bertsoz, koblakariak gizonen espantua, erlaitz eta zintzurretakoa, ekarri zuen gogora...»	(31)
eroapen 'pazientzia'	«Lehenengo aldiz zebilen bidaia luze batean aitarekin, eta udaberria eta uda osoak zeuzkan honen jakintza eta eroapena kinkan jartzeko.»	(21)
errain '(nuera)	«Lasai hil zitekeen Ximeno zaharra, behin eta berriz eskerrak emanaz Maiari horrelako errain jantziagatik.»	(61)



erretilu 'bandeja'	«...kuxinetan eseri eta mokadu baten zain gelditu zen. Berehala (...) pastak eta menda infusioa ekarri zizkieten zilarrezko erretiluan ...»	(105)
erreus 'hondatua, balio ez duena'	«...mailatutako ezkutua eta baita lanabes erreusak ere gerra trofeo bihurtu ziren.»	(164)
erezela 'kortina'	«Gelako ilunenean erezela bat poliki ireki eta gizon bat hurbildu zen...»	(89)
erronkari 'mehatxuzkoa'	«Oztopo tentea eta erronkaria inguratu edo hondoratu egiten zuen frankoen oldeak.»	(44)
erti 'arte'	«Zergatik eman ote zizkien Jainkoak musulmanei zientzia, ertia , kultura?»	(151)
estreinako 'lehenengoa, lehenbizikoa'	«Beste etsaiak, abere handi eta arinetan dabiltzanak eta erasotzen estreinakoak izandakoak hego-sartalderantz doaz, Errolanen atzetik.»	(216)
eurrez 'ugari, asko ere asko'	«Zazpi ahalak eginda ere, emakume asko ostu zizkiguten. Menditar eta arrantzaleak eurrez etorriko dira borrokara...»	(117)
eutsi 'neurtua, neurrikoa'	«Burumakur eta isilik kontseilariak, haserre eutsia ere bazebilen.»	(152)
ezkeroztik '-ren ondoren'	«Gaurko eguna ezkeroztik soldaduak ez dira erlaxatuko.»	(162)
felido aireak eduki 'harrapari jarrera eduki'	«Sagututa zegoen katua, eta Al Hussayn, gizon lasaia, aliatu seguruak, felido aireak zeuzkan.»	(126)
firfira 'fin'	«Panikoaren haizea dabil firfira ; urratua eta sakabanatua tropa.»	(214)
frixtan 'brixtan, bat-batean'	«Neskak ezin entzun. Norbaitek heldu zion frixtan Mikeloti eta lurrera bota.»	(115)
galarazi 'debekatu, eragotzi'	«— Errege banintz zera egingo nikek, besteok baino hamar aldiz gehiago jatea galarazi hiri. Horrela urritasunik ez.»	(118)
galeper 'txori mota'	«Txistua bota zuen galeper hezur zurietara.»	(14)
gandorregi 'harrotxkoa, harroputza'	«...zure aurpegian ikusten dut, zure jokamolde lasaiegian, gandorregian .»	(130)
gantza 'koipea (sebo)'	«— Kanpamentuetan sartzen ziren aiztoa txerri gantzetan bezala, berrogei bat lagun!»	(161)
gar 'sugarra'	«Gizonak pozik zeuden, gorputzak garren epelak bizkorturik eta jaki usain goxoak airean.»	(30)
garo 'ira, iratzea'	« Garo artetik dozenaka gizon jalgitzen da, lonbardiaren ilararen luzera osoan...»	(221)
gaztaintara 'gaztaina kolorekoa'	«Egun hartan udaberriko eguzkiak urrezko dizdizak ateratzen zituen adats gaztaintaratik .»	(20)
gertu 'hur, hurbil'	«Muturra lurraren arrasean desgogara larratzen, burua nerabearen gorputzetik gertu .»	(176)
gibel 'atzea, atzeko aldea'	«Silok jakin dezala ez noala bere kontra, baina nire giblean zeozertan hasiko balitz buelta eman eta txikitu nezakeela!»	(42)
gider 'kirtena, euskarria'	«Zorion oihuak Mikeloten barrenean, giderrak eskuetan zeuzkan, hiriko mila konturi ekin behar.»	(25)
gizonkote 'gizontzarra, kankailua'	«Batzuen zurdak gerrirainokoak ziren, kopetan larruzko hede batekin lotuta. Gizonkote latzak, bi ahoko aizkora erraldoiak...»	(139)
gogaitzeko egina 'etsitzeko, ez ausartzeko'	«...ate zabalak, astunak, kuku-leihoz inguratuak, erasotzaileak gogaitzeko eginak .»	(54)
goititu 'altxatu, goratu'	«...denetik edukitzera zegoen ohituta, eta horiek goititzera behartuko zuten.»	(72)




gomuta 'oroitzapena'	«Gure obra handia eta ederra duk, eta iraun egingo dik bere gomutak datozen mendeetan.»	(205)
gori 'bero-beroa, goren gradua'	«Iruñeak laster ezagutuko du, bai, nire suminduraren goria ...»	(163)
gurtu 'laudatu, adoratu'	«Izaki adimendunak ziren, Pirinioetako herriak gurturik , baina uzkurak kanpotarrentzat.»	(188)
gutartu 'gutarrak bihurtu, kide'	«Utz diezaiegun gutartzen! Gure mahaian edan dezatela! Haien arrazako batzuk bataiatuko dira, anima ditzagun gainerakoak.»	(43)
gutizia 'zerbait desiratua'	«Turpinek bukatu ahala azkar asko ekin zieten afalkideek gutiziei , esku hutsez edo aitzodunez.»	(31)
handinahien 'anbiziotsua'	«Bihotza esperantzaz eta burua egitasmoz beterik, kanpainarik handinahienari ekin dio.»	(29)
harramantza 'harrabotsa, iskanbila, burrunba'	«Gainerako guztiak harramantzaz jarraitu zitzaizkion kargan, Veillantif zenbait zalditako aldearekin zihoan aurretik.»	(95)
harranpa 'karranpa, gihar uzkurdura mingarria (agujeta)'	«Muskuluetako harranpa eta oinetako zauriei ez sentituarena eginez igo zen...»	(193)
hastapen 'hasiera'	«...ikuskituz latza ezin zuen inola ere hartu bere herria mendeetan inoren pean egongo ez zen garaia hastapen mingarritzat, baina horixe zen.»	(235)
hautu 'aukera'	«Ez zuen ulertzen, berriz, zaharraren hautua . Zergatik ez zuen bera aukeratu horrelako bilera baterako? Apetak eman bezala jokatu zuen zaharrak?»	(84)
hazpegi 'aurpegi itxura, fakzioak'	« Hazpegi gazte ernea, zinezko begirada, dotoretasuna, berdinek gabeko maila...»	(46)
haztamuka 'ukimenaz baliatuz, ikusi barik'	« Haztamuka harantz ibili, aurkitu, higuin pittin batez sartu eta barrunbe beltz hartan kuzkur-kuzkur egin zen.»	(189)
hede 'larruzko uhala'	«Emeki, lepotik zintzilik zuen hede fin bat atera eta Idoiari sartu zion burutik behera; zurezko lauburu txikia dilindan gelditu zen Idoiaren bular aldean.»	(38)
heldu 'hozkada, haginkada'	«— Echium, sugeen hoskaden eta intsektuen helduen kontra.»	(37)
heriosugar 'jo eta su, bizi-bizi'	«Eneko eta Fortunek, amaz gabetu zituztelarik, heriosuhar eman zioten ihesari.»	(169)
herra 'gorrotoa'	«Nola herrarik sentitu bizitzeko arrazoia zitzaion emakumearenganako?»	(60)
hilurren 'hiltzorian, hiltzeko puntuan'	« Hilurren zegoenari atsedentzen uzteko pazientzia hartu zuen.»	(19)
hitz beste egin 'isildu, mutu geratu'	«— Eta zer esan zinan? Hitz beste egin zuen Leirek.»	(166)
hitz-mitz 'berriketa, jarduna'	«Gartxotek hitz-mitz jarraitu zion Mikelot haluzinatuari.»	(183)
hoben 'errua, falta, bekatua'	«Boluntario azaldu zen, ezetza hobena litzateke. — Bedi! Gure azken saioa izango da...»	(153)
hortz! 'eraso!'	«Inñigoren gerra garrasia entzun zuen Mikelotek. — Hortz! »	(166)
hostaila 'hosto piloa'	«Berriz ere segurtasuna haitz gainetan, ibaietatik harantz, hostailaren azpian. Lur hura etxe zuten, ama, aliatua.»	(62)
hots egin 'deitu'	«Erregeak baroiei hots egin zien, armadak nekez jarraitzen zuelarik aurrera...»	(29)
iaio 'trebea, abila'	«Gartxot iaioa zen oso, baina bertan baziren aurkari finak, ironiazko kontrakarrean abilak...»	(26)
ibi 'pasabidea, igarotzeko lekua'	«...nolanahi ere, gaur bertan hartuko dugu Tuter eta ibia babestuko!»	(98)



ihar 'errea, haragi gutxikoa'	«Emakumeen taldetik aparte xamar, lurrean bazen gorputz bat, katez eta pildaz, gorpua bezain argal eta ihar .»	(77)
ilunbeltz 'pentsakor, kezkatuik'	«Baroi nagusiak kontseiluko dendara sartu zirenean isil eta ilunbeltz ikusi zuten Karlomagno.»	(135)
ipurburu 'tentela, tontolapikoa, lerdoa'	«— Mendateetan, ipurburu! Baina horixe ikusi nituela sarrazenoak...»	(16)
izakin 'dauden gauzak'	« Izakinak ardo eta garagardo saltzaileek bakarrik agortu zituzten.»	(56)
izerdi patsetan 'izerditan blai, bustirik'	«... izerdi patsetan zegoen entzun ziezaioten egin beharreko eginahal itzelagatik.»	(47)
jakin dezanean 'jakiten duenean'	«Ekkkartek jakin dezanean Errolanek babesten diola bizkarra...»	(216)
jaldi 'irten, atera'	«Antselmoren tropak horrenbeste ikaratu dituen zarata ez da lainotik at jaldi .»	(219)
jantzi 'azkarra, ikasia'	«Lasai hil zitekeen Ximeno zaharra, behin eta berriz eskerrak emanaz Maiari horrelako errain jantziagatik .»	(61)
जारри 'atzetik jarraitu'	«Hauxe proposatzen dizut, bil zaitezte zeuendarrekin iparsartaldeko bidean, ez dizuet जारриko , ez zaizue inongo kalterik egingo.»	(99)
jazo 'gertatu, agitu'	«...ez zen, ordea, ezer xebrerik jazo ...»	(90)
jori 'oparoa, ugaria'	«Erregeak hitz egiteari ekiten zionean —eta jario joria izaten zen— ideia eta erabaki uholdea zetozkien solaskideei.»	(44)
jostetan 'jolasten, olgetan'	«—Leire kakaume bat besterik ez da! Txikia da eta oraindik andrakilekin ibiltzen da jostetan! »	(53)
kakaume 'ume mokoia, kakanarrua'	«—Leire kakaume bat besterik ez da! Txikia da eta oraindik andrakilekin ibiltzen da jostetan!»	(53)
kakudun 'kakoduna, okertua'	«Hiru gailurrak gandor zorrotz batek lotzen zituen. Ipar haizeak bultzaturik bezala makurturik, ia kakudunak ziren.»	(21)
kalamastra 'destartalatu, zaindu gabea'	«Horrelako jende etorrerarik sekula ez zuen ikusi bertakoek gutxiesten zuten elizatxo kalamastrak .»	(47)
kamuts 'zorrotza ez dena'	«Txistua bota eta aizto herdoitu eta kamuts bat gogoz kontra bezala erakutsi zuen.»	(13)
karraska 'igurztearen soinua'	«Horrela hitz egiten zien Maiak seme-alaba kuttunei, lur azaleko izaki guztien musikaz, txoriaren deiaz, harrien karraska doiaz.»	(28)
kaska-kaska 'jota dagoena'	«...gure etxera armaz zama-zama etorritako kanpotarrez eta bere burua leienda bizitzat duen neska kaska-kaska eginda batez fidatu naiz.»	(84)
kaskabilo 'kaskabelak'	«Mikelotek erritmo saltakaria markatzen zuen danbor arin batez, aita aire ozenak jotzen zituen flauta hiru zulodunaz, bien orkatiletan kaskabiloak .»	(23)
kattagorri 'urtxintxa, katamixerria'	«...haritz berezko bi hormapikok egonkortua, urkila abegitsua kattagorri , basakatu edo Mikelot batentzat.»	(54)
kinkan jarri 'proban jarri'	«Lehenengo aldiz zebilen bidaia luze batean aitarekin, eta udaberria eta uda osoak zeuzkan honen jakintza eta eroapena kinkan jartzeko .»	(21)
kirastuna 'zantarra, hatsa dariona'	«Arrotza hortzik gabeko zahar kirastuna zen.»	(13)
kirioak airean 'nerbioso, urduri, tentsioan'	«Bi solairu beherago Matruh eta Aysun kirioak airean kanpokoari adi-adi.»	(138)
kleriko 'elizgizona'	«Baroiak, kapitainak eta klerikoak festa-jantziz sartuko dira hirira.»	(42)
koblakari 'poeta kantaria'	«Horrelako ongi etorriak zur eta lur utzi zuen koblakari gaztea. Azken emanaldiaren ezta ezpainetan zetorren, nekatu eta pozarren...»	(13)




kontrakar 'arrapostua, erantzuna'	«Gartxot iaioa zen oso, baina bertan baziren aurkari finak, ironiazko kontrakarrean abilak...»	(26)
kuxinete 'aulkitxoa'	«...apartamentuetara igo, kuxinetan eseri eta mokadu baten zain gelditu zen. Berehala (...) pastak eta menda infusioa ekarri zizkioten zilarrezko	(105)
kuxkuxero 'jakin-minezkoa'	«Begirada kuxkuxeroak sentitzen zituen Mikelotek; mespretxuzkoak batzuk, bekaitz agian.»	(76)
kuzkur-kuzkur 'batu-batu, gorputza bildu'	«Hatzamuka harantz ibili, aurkitu, higuin pittin batez sartu eta barrunbe beltz hartan kuzkur-kuzkur egin zen.»	(189)
laga 'utzi'	«Zaragozako murailak ez zion odol paganorik isurtzen laga .»	(200)
laido 'umiliazioa (afrenta)'	«Sulaymanen ihesak gainezka jarri zuen lapikoa, a ze laidoa Karlomagnozentzat.»	(161)
lain 'adina, bestekoa'	«Iñigo ez zen buruzagirako lain . Gizon ona zen (...) baina antolatzeke, agintzeke, gobernatzeke, besterik behar da.»	(61)
lakar 'latza, marrantatua'	«— Basati odol zaleak —Oneka, ahots lakarrez —. Manera finak, bai, eta gero?»	(85)
larratu 'belarra jan'	«Muturra lurraren arrasean desgogara larratzen , burua nerabearen gorputzetik gertu.»	(176)
lauhazka 'galapan, arin ere arin, ahalean'	«Azkenean, entzule ooren buruan baroi heroikoen atzetik zihoazen, lauhazka garaile.»	(31)
lizar 'arbola mota, lexarra'	«Jendea lizar sakartuaren inguruan dantzan hasten zelarik...»	(143)
magal 'altzoa, sabel aldea'	«Lagun gehiegi joan zen Maiaren magalera urterik onenak bizitzeke.»	(123)
maia 'euskal jainkosa nagusia: Lurra'	«Lagun gehiegi joan zen Maiaren magalera urterik onenak bizitzeke.»	(123)
mailatu 'kolpatu (abollar)'	«... mailatutako ezkutuak eta baita lanabes erreusak ere gerra trofeo bihurtu ziren.»	(164)
mamukara 'mamu itxurakoa'	«...belar gainerik oinezko handi baten eta zaldizko gazte baten silueta mamukarak .»	(184)
mandio 'lastategia, belar siku gordetegia'	«— Izarpean edo mandio batean sarriago egiten dut lo harrizko etxeetan baino.»	(87)
marrantatu 'ahots kraskatua, trabatua'	«...orru eta arnas hots asalatuak, oihi marrantatuak .»	(171)
men egitea 'obedientzia'	«— Seguru asko ez dira aski izango zergaren eta gure men egitea . Denok kristautzea nahi izango dute.»	(59)
mendratu 'gutxitu, eskastu'	«Ez zuen federik, ala? Edo mendratzen ari zitzaien?»	(201)
moezin 'musulmanak otoitzera deitzen dituen'	«Minaretetik moezinak otoitzerako bigarren deia kantatu zuen.»	(107)
muin eman 'mosu eman'	«...koblakariak hiru aldiz egin zuen aitaren eta hatz lodiari muin eman ...»	(15)
munta 'garrantzia'	«Mikelotek larritasuna sentitu zuen barnean, baina honen munta ezin aldera zitekeen Idoiaren nahikundeak sorrarazitako poztasunarenarekin.»	(38)
nahikunde 'desioa'	«Mikelotek larritasuna sentitu zuen barnean, baina honen munta ezin aldera zitekeen Idoiaren nahikundeak sorrarazitako poztasunarenarekin.»	(38)
narras 'herrestan doana, dorpea'	«Bizitzaren berezko erritmoa eten egin da armadari, munstro narrasari , pasatzen uzteko.»	(206)
oinaztargi 'tximista, inisitu'	« Oinaztargiak , bata bestearen ondoren, eta intziri patetikoak mutilaren erantzuna.»	(189)




oinordeko 'herederoa'	«...oraingo lagun Ximenoren oinordekoak derrigor izango ziren noizbait seme Velascoren lehiakide.»	(68)
okin ore 'ogia egiteko masa'	«Gorputz nagusia, erregeak gidatzen duena, okin ore a bezala luzatzen da.»	(208)
olana 'toldoa, oihal lodia'	« Olana eta burdinazko hiri haren uniformetasun eta zabaltasunak eragindako zorabiotik ezin libratu Mikelot.»	(49)
oldarrean 'indar handiz, inpetuz'	«— Hi bezalakoei bai jana, baita arnasteko airea ere ukatu behar zaizkizue — arrotza oldarrean .»	(13)
olde 'aldra, kopuru handia'	«Oztopo tentea eta erronkaria inguratu edo hondoratu egiten zuen frankoen oldeak .»	(44)
oldoztu 'gogoeta egin, pentsatu'	«Ez daki Zaharrak zenbat kaskezur —kaskodun edo gabe— txikitu dituen gaur, zenbat ezkutu. Begira, entzuten, oldozten .»	(220)
olifante 'bolizko adarra, komunikatzeko'	«Kapitainei ahalik zaratarik handiena egiteko agintzen die. Birika-beteka ekiten diote denek, adar eta olifante .»	(220)
oniriko 'ametsetakoa'	«Arratsak aurrera ahala sinesgarritasunaren hedeetatik askatu zen elkarren arteko solas onirikoa .»	(64)
oniritzi 'adostasuna'	«Menditar eta arrantzaleak eurrez etorriko dira borrokara eta kristauak larrutik ordainduko dute! Oniritzizko ahotsak.»	(117)
orbain zizare 'zauri zizarea'	«Gurdiak dozenaka, abereak ehunka, gizonak milaka; amaierarik gabeko lerro bihurria. (...) Orbain zizare luze mugikor batek ebakitzen du mendia.»	(29)
orbaindu 'zauria itxi, zikatrizatu'	«— Echium, sugeren hoskaden eta intsektuen helduen kontra. Plantaina, zauriak errazago orbaintzeko ; ez ahal duzu erabiliko!»	(37)
ordoki 'lautada'	«Bardeetako basamortua Nafarroako hegoaldeko ordoki emankorren eta iparraldeko baso oparoen artean kokatzen zen.»	(157)
ortziren hortza 'gerrarako deia egiteko adarra'	«Gure mendietara itzuli eta gerrarako prestatu beharko genuke. Azkenean Ortziren Hortza esnarazi beharko dugu.»	(59)
ospa egin 'ihes egin'	«Bi gaizkileek hanken ahalegin osoan egin zuten ospa , kaleetatik arineketan...»	(57)
ostertz 'zeru muga, horizontea'	« Ostertza oraindik eguzkiak leunki koloreztaturik, zortzi kideak basajaunak esandako lekuan kokatu ziren...»	(90)
otzandu 'apaldu, baretu, kikildu'	«Jarrai diezaiogun planari, moldatuko gara kristauak toki egokian ipintzen, edo otzantzen .»	(132)
pairamentsu 'sufritzen dakiena'	«...Errolani bezalaxe obedituko zioten gizon ausart eta pairamentsuak .»	(76)
patetiko 'penagarria'	«Batzuk aldarrika, bestek itzultzen, elebidunei kexak azaltzeko eskatzen baten bat; patetikoa zen desordena.»	(65)
patu 'zoria'	«Basajaun batek bakarrik (...) Haien senak inorenak baino hobeto igartzen ziek patuak etorkizunerako ezarritako bide ezberdinei.»	(52)
pausaje 'erritmoa'	«Aralarren ganean zihoala, pausoan, Atarrabiko mezulariak pausajeari jarraitzen zion.»	(184)
piko 'aldapatsua, aldats gora'	«Astobizkarko malda gero eta aldapatsuagoetatik, jira hona eta jira hara. Pikoak dira, ez dago atsedeenik.»	(207)
pilda 'zaharra eta gastatua'	«Emakumeen taldetik aparte xamar, lurrean bazen gorputz bat, katez eta pildaz , gorpua bezain argal eta ihar.»	(77)
pipinida 'Pipinoren semea zen' (?)	«Proventzako ardoa zerbitzatu zuten otoitzean ari zen Karlos pipinidaren mahaira; ezker-eskuin, Ekkehart seneskala eta jauregiko kondea, Antselmo.»	(31)
pitzatu 'arrakaldu, artesitu'	«Murailak eta atepak dardaraz jarri zituen frankoen tropen arietan talkak, baina zurezko egiturak ez ziren pitzatu .»	(146)
pozarren 'poz-pozik, ezin alaiago'	«Horrelako ongi etorriak zur eta lur utzi zuen koblakari gaztea. Azken emanaldiaren ezitia ezpainetan zetorren, nekatu eta pozarren ...»	(13)



prefosta 'noski, jakina'	«...bazekiten buruzagiak inork baino hobeto ezagutzen zituela diplomaziaren zertzeladak; prefosta , zenbait partidatan batera ari zen.»	(45)
preseski 'hain zuzen'	«Gu, Akitanian, gogorki aritu gintuzuen frankoen kontra borrokan, gure erregearen familia bahitu zuten arte preseski .»	(121)
profitatu 'baliatu, aprobetxatu'	«Abangoardiak goizeko freskura profitatu du bigarren mendateari ekiteko.»	(206)
qarl erregea 'Karlomagno, arabiar moldean'	« Qarl erregeari ahalik ongiena egin diezaiogun harrera.»	(111)
saldukeria 'traizioa'	«—Eta jakina, memento erabakiorrenean egin duzu saldukeria! »	(125)
samin 'minezkoa, sentitua'	«Gartxot Eunatetik gertu gelditu zen, belauniko lurrean negar saminean .»	(112)
santio bidea 'Santiago bidea'	« Santio bideari sartaldetik sortaldera jarraitu besterik ez.»	(185)
sarebegizko kota 'sare gisako babesia'	«Gizon ederra eta dotorea, sekula ikusitako sarebegizko kotarik distiratsuen zeramaan...»	(16)
sarrazeno 'musulman borrokalaria'	« Sarrazenorik ez zuan inon, eta zenbait mandatetan gertatu zuan, ez batean, eta ez zitean izenik.»	(15)
sarrio 'Pirinioetako ahuntza'	«...tunika beltz urreztatua galtza motzen gainera erortzen zitzaion, zeinen bukaeran sarrio larruzko bota arinak baitzeuden.»	(46)
segaila 'lerdena, ederra eta erakargarria'	«Lodi izeneko menditar gerrari bat, urritxaren adarra bezain segaila zen...»	(117)
sen 'instintua'	«Basajaun batek bakarrik (...) Haien senak inorenak baino hobeto igartzen ziek patuak etorkizunerako ezarritako bide ezberdinei.»	(52)
sigi-sagaka 'zig-zag eginez'	«Lasterka xelebrea hasi zen, geldoki, nahita estropezu eginez, sigi-sagaka , behin ere ez gainerako presoen atzetik.»	(159)
sona 'entzutea, ospea, fama'	«...zakarra itxuraz, baina zaldizko azkar eta nekaezinen sona zuena.»	(176)
sorbatz 'aho zorrotza'	«...ezkerrean ezpata motza zuen, sorbatz bakarrekoa.»	(96)
sorgortu 'ezindu, paralizatu'	«Minik ez, baina besoa sorgortu egin zaio, ezertarakoez geratu. Ezpatari ezkerrez eusten dio.»	(228)
sufi 'islamista, sufismo jarraitzailea'	«— Sufi horietakoa izango duzu orduan —marmarrean Sulayman, aurkariaren jokoan sartzen zelarik.»	(128)
suminduxe 'nahiko haserre'	«—Horixe... — suminduxe Turpin. Batetik bestera zebilen lau gizonen aurrean.»	(68)
suspertu 'animatu, bere onera etorri'	«Laster suspertu zen Mikelot armadak sorrarazitako txunditzetik.»	(51)
sutan egon 'haserre bizian egon, suminduta'	«...jakinik gainera Qarl erregea sutan egongo zela horrelako kanpaina negargarriaren ondoren.»	(158)
tarrapataka 'arin-arinka, arrapaladan'	«Hirugarrenak tente darrai, gazte bat, amorrazioz ero, tarrapataka doakio eta armadura lantza puska batez zeharkatzen du...»	(217)
tatarrez 'arrastaka, tarras'	« Tatarrez darama Mikelotek laguna, astunki; eldarnioan Hunaldo.»	(228)
tontokote 'pepelerdoa'	«A ze tontokotea bidali didan Jaungoikoak horretarako!»	(17)
txistu 'ttua, listua'	« Txistua bota zuen galeper hezur zurietara.»	(14)
tzar 'handia, itzela'	«Harribitxi tzarrekin edertzen zitiztean kopeta eta belarriak, eta zimitarra makurrak zeramatzatean, hire lepoa erraz asko mozteko modukoak.»	(17)



ugatz 'hegazti haratustel jalea'	« Ugatz bat ikusi zuen beste putreengandik bereiz, luma eta bibote harroa erakusten.»	(187)
ulu 'alaraua, oihu luze berezia'	«Hontz zuri baten uluak atzera ekarri zion esperantza.»	(158)
urkamendi 'urkatzeko lekua'	«Kanpamentuaren beste muturrean, bazter batean baina ikusgarri oso, urkamendia ...»	(77)
urkila 'lotunea (horquilla)'	«...haritz berezko bi hormapikok egonkortua, urkila abegitsua kattagorri, basakatu edo Mikelot batentzat.»	(54)
uzkur 'mesfidatia, konfiantza bakoa'	«Izaki adimendunak ziren, Pirinioetako herriak gurturik, baina uzkurak kanpotarrentzat.»	(188)
uzkurtu 'batu'	«...baina ordukoan ohi baino gehiago azkartu zitzaion pultsua eta urdaila uzkurtu .»	(49)
wali 'gobernadorea' (hitz bisigodoa)	«Eta neurri handi batean hori guztia Al Hussayni, Zaragozako waliari zor zitzaion, zeinak hitzarmena egina baitzuen (...) wali handiarekin.»	(103)
xalo 'inuzentea, sineskorra'	«Hitz egin, kantatu, eta ipurdia antzarak uretatik irtendakoan bezalaxe astintzen duk jende xaloari faltsukeriak kontatzen dizkioan bitartean...»	(14)
xaxatu 'zirikatu, borrokara bultzatu'	«Helburua sartaldeko bi potentziak elkarren kontra xaxatzea zen, Karlomagnoen franko erresuma eta Abd al-Rahmanen Espainia...»	(108)
xelebre 'bitxia'	«Zirrara ezkutatzeko ahaleginetan Musa. Familiatik aparteko maiteenen izenak xelebreak ziren zaldun kristauaren ahotsaz.»	(101)
xendra 'bidexka'	«Bi gazteak pentsamenduen xendran abiatu ziren, zein bere bide ezberdinetik.»	(27)
xuxurlan 'ahapeka, isilean'	« Xuxurlan hitz egin zion; inongo beharrik ez, franko ezkutariak euskaraz hitz erdirik ez baitzekiten.»	(63)
zabuka 'kulunka, alde batetik bestera'	«Dardaraz paretak, ikaraz lurra, zabuka atearak.»	(142)
zaildu 'beteranoa, luze aritutakoa'	«Zaharra berbera zen etorria, sartaldeko menditar zailduen ordezkari»	(117)
zakar 'jarrera gogorrekoa, desatsegina'	«Halere, laster eraman zuten Idoia zeregin baxuagoetara; zakarra omen, eta baldarra zerbitzitzen, ontziteriarekin-eta.»	(147)
zakurputza 'babua'	«— Ez ni zirikatu, zakurputza! Hik konta ditzakeenak baino gizon gehiago hil ditiat, kristauak gehienak.»	(18)
zama-zama 'oso kargatuta'	«...gure etxera armaz zama-zama etorritako kanpotarrez eta bere burua leienda bizitzat duen neska kaska-kaska eginda batez fidatu naiz.»	(84)
zamari 'mandoak-eta, zama abereak'	«...han ez zen borrokarik; zamariak laztantzen eta kordei begiratzen hasi zen, mandazain batek egingo lituzkeen gauzak.»	(160)
zapaburu 'kakanarrua, ergela'	«— Isilik egoten badakik, zapaburu horrek, a ze sorpresa!»	(18)
zapparrote 'lodikotea'	«Zaldiak ez ziren lehengo berak, txikiak baizik, zapparroteak .»	(215)
zaputzean 'purustari, mukerturik, haserre xamar'	«— Ez daukagu zereginik hemen — zaputzean Iñigo—. Gure mendietara itzuli eta gerrarako prestatu beharko genuke.»	(59)
zarpa 'zarpaildura, ugerra'	«Dudan Gartxot, zaharra espero zutena izango ote zen, zarpetan antzara oina bazuen ere; kasualitatea?»	(77)
zarraizkidate 'jarrai zakizkidate'	«— Oraintxe da mementoa, laguntzook —tonu jostarian—, zarraizkidate! »	(173)
zartailu 'zigorra, latigoa'	«...erasoari behar bezala aurre egin ez zioten konpainietan eta troparen aurrean zartailuz zigortu zituzten.»	(160)
zaugarri 'zauritzeko erraza'	«Euskal zaldizko gehienek ez daukate armadurarik, zaugarriak dira oinezkoen gezi eta lantzetarako.»	(215)



zazpi ahalak egin 'ahalegin itzelak egin'	« Zazpi ahalak eginda ere, emakume asko ostu zizkiguten. Menditar eta arrantzaleak eurrez etorriko dira borrokara...»	(117)
zeken 'zikoitza, diru zalea'	« Zekena zinela esan diot Qarli, zikoitz alua; erraz erosiko zintuela.»	(129)
zela-abere 'gainean ibiltzeko aberea'	«Segituan ziren denak zelabereen gainean.»	(38)
zertan den 'zelan dagoen'	«Basajaun batek bakarrik argi liezagukek ongien oraingo egoera zertan den .»	(52)
zimitarra makurra 'ezpata arabiarra, okertua'	«Harribitxi tzarrekin edertzen zitiztean kopeta eta belarriak, eta zimitarra makurrak zeramatzatean, hire lepoa erraz asko mozteko modukoak.»	(17)
ziplo 'bat-batean, kolpean'	«Gaztearen irmotasun eta gogortasunak lurrera amildu ziren ziplo , heriotza edo zauri txarren mehatxupean.»	(13)
zirkin 'mugimendu txikia'	«Bilerako dudak gorabehera, kontseilariak zirkinik gabe egingo zituzten egokitutakoak»	(45)
zirrara 'emozioa, hunkipena, inpresioa'	« Zirrara ezkutatzeko ahaleginetan Musa. Familiatik aparteko maiteenen izenak xebreak ziren zaldun kristauaren ahotsaz.»	(101)
zitean 'zuten'	«Sarrazenorik ez zuan inon, eta zenbait mandatetan gertatu zuan, ez batean, eta ez zitean izenik.»	(15)
zitiztean 'zituzten'	«Harribitxi tzarrekin edertzen zitiztean kopeta eta belarriak, eta zimitarra makurrak zeramatzatean, hire lepoa erraz asko mozteko modukoak.»	(17)
ziztakoan 'atoan, berehala'	«Pertsona aurkitu zuen, baina espero zuen zahar jakintsu bat, egoera ziztakoan ulertuko duena.»	(89)
ziztrin 'balio gutxikoa, exkaxa, petrala'	«...gezurtizat salatzeak, ordea, bere onetik ateratzen zuen, erantzun gogorra eman behar zion zahar ziztrinari .»	(13)
zornetsu 'gatxez, infekzio jarioz betea'	«— Apo zornetsu bat, gezurti amorratu bat, horixe haiz hi!»	(13)
zuntzundu 'lelotu, zentzua galdu'	«Basoan dabilta, zuntzundurik arrastaka; nora jo, zer bilatu?»	(232)
zur eta lur 'harritura, sor eta lor'	«Horrelako ongi etorriak zur eta lur utzi zuen koblakari gaztea. Azken emanaldiaren ezta ezpainetan zetorren, nekatu eta pozarren...»	(13)
zurda 'ilaje luzea, ile sortak'	«Batzuen zurdak gerrirainokoak ziren, kopetan larruzko hede batekin lotuta. Gizonkote latzak, bi ahoko aizkora erraldoiak...»	(139)
zurrun 'gogortua'	«Ez zuen ematen, inondik ere, iseka egiten zionik; Gartxotek ume handia bazirudien ere, begi zurrun horiek...»	(36)
zurtu 'harritu'	«Etsaiak zurtzeko ere balioko du.»	(223)